

r

Raill, raille: *iz. Tre.* Erraila, trenbideko burdin pieza, trenaren bidea ezartzen duena./ *Railllek.* Errailak. (JUA, 2002-11-02)/ *Arrailllek-eko kanbiatu bearra.* Erraialak-edo aldatu beharra. (JUA, 2002-01-12)/ (aldaera **Arraill**)

Ráma, rámea: (ik. **Arrama**)

Rantxéro, rantxéroa: *iz. Rantxo* edo arrantxoa prestatzeaz arduratzen zen pertsona, normalean ikazkin edo basomutil taldeen barruan. Beronek basoan zeuden beste langileei dei egiten zien otordu garaia iristean, eupada edo lekaio baten bidez./ *Rantxero.* Arrantxeroa. (JUA, 1998-04-05)/ (aldaera **Arrantxero**) (ik. **Arrantxerotza**)

• *Emog. Lekaioa:* Deia lekaio luze bat zen: *Eee!* JUA-eta Antxerdi aldean lanean zenbiltzanean, inoiz aditu izan zuten lekaio hau. Izan ere, *luze... indar aundiñ* izaten zen. (JUA, 1999-01-23)/ *Arrantxerotzea... arrantxero.* Arrantxerotza... arrantxero. (JUA, 2004-08-12)

Rántxo, rántxo: *iz. Arrantxoa, janaldia./ Rantxo.* Arrantxoa. (JUA, 1998-04-05)

• *Emog. Ikazkinak:* Hitz hau gehienetan, basomutil edo ikazkinak, basoan egiten zituzten otorduak izendatzeko erabiltzen da. (JUA, 1998-04-05)/ *Ikazkinak basoan baba* jaten zuten. *Baba beltza* eta *ardi zarrak* ziren euren jaki ohizkoenak. Amil-dutako behi bat ere eskaini zieten ikazkinei eta hau zezina eran jarri zuten. (JBA)

Ráro, rároa: *izond. Arraroa./ Gauza raroa.* Gauza arraroa. (JBA, 2006-08-17)

Ráska-ráska: *Onom. Raska-Raska.* Onomatopeia honen bidez garoa igitiaz nola ebakitzen zuten adierazten du./ *Raska-raska.* Raska-Raska. (JUA, 2003-03-01)/ (sinonimoa **Rasta-rasta**)

Rast!: *Onom. Berehala egiten den ekintza baten onomatopeia./ Rast! Rast!* (Saskiak egiteko zuhaixken azal pusketak nola ateratzen zituzten adieraziz) (JUA, 2002-01-19)

Rásta-rásta: *Onom. Rasta-rasta./ Ebai rasta-rasta.* Ebaki rasta-rasta. (Garia nola ebaki duen adieraziz) (JBA, 2003-07-13)/ Onomatopeia honekin ere adierazten



› **REGATEA.** Arraunlariak beroketan Pasaiaiko partean. (AA, 2008-07-12)

zen laia lanean lurra ateratzen zen uneko hotsa. (JUA, 2002-09-14)/ (sinonimoa **Raska-raska**)

Ráza, rázea: (ik. **Arraza**)

Razionaméntu, rasionaméntue: *iz. Arrazionamendua, eskasia denean erakundeek egiten duten jan eta beharrezko gauzen salmenta arautu eta mugatua. Gerra ondoan arrazionamendua izan zen bolada batean./ Razionamentue.* Arrazionamendua. (JBA, 2004-12-03)

Rebájau: *ad. Gutxitu./ Rebajauta.* Gutxituta. (Botika bigunduta) (JBA, 2007-07-14)

Rebóke, rebókea: *iz. Errebokea./ Rebókek.* Errebokeak. (Horma baten gainean esana) (JBA, 2005-06-04)/ *Masakin arri tartek bete* da errebokea egitea. (Joxemari UB, 2009-01-21)

Regátea, regátea: *iz. Estropada./ (•)*

► *Grab. Estropada:* Umetan aitarekin inoiz joan ziren Donostiara estropadak ikustera: “*San Pedro zan geiena, urteik geianetan San Pedrok, San Juan... baiño San Pedro zan. Aurreko eunen ikustekoa izaten zian, trabesak, trabesak an, parte zarrren-ee. Oiñ ez dakiat seützen duen, oiñ, oiñ e bai. Ainbeste miñutun baietz, ainbeste zean baietz, ezetz, or*”. Apustuak ere izaten ziren. “*Ez. Ni motiko txikie nützen baiño. Ni junda nao Donostira jun da etziten gustatzen nei regataik. Launekiñ ee ola jun, da ezta regatata arrimau’re ez. Ezta arrimau’re, etziten*

gustatzen regataik. An eoten zien goiko puntaño junda, an eoten zien batzuk. Baiño, noaiño junda, regataik ikustea” (JUA, 2002-07-21)

Rekojída, rekojída: *iz. Bilketa./ Rekojída.* Bilketa. (JBA, 2008-03-13)

Rekorridu, rekorridue: *iz. Ibilbidea./ Rekorridue.* Ibilbidea. (JBA, 2003-10-26)

Relíki, relíkie: *iz. Erl. Erlikia./ Relíkie muiñ ematea.* Erlikia muin ematera. (Brinkolan egiten dena) (JBA, 2008-08-31)

Rentéro, rentéroa: (ik. **Errentero**)

Reuma, reumea: *iz. Erreuma, gaitz mota./ Reuma.* Erreuma. (JBA, 2003-03-01)

Rezélo, rezéloa: *iz. Errezeloa./ Ortze rezéloa.* Hortxe errezeloa. (JBA, 2004-04-17)

Rezibittu: *ad. Hartu./ Rezibitzen.* Hartzen. (JUA, 1999-05-29)

Rink!: *Onom. Elkarren artean pilatuak dauden egurrak ebakitzean, kateatuak dauden batzuk kolpean askatzen direla adieraziz./ Rink! Rink!* (Motozerraz ebakitzean esana; kontua izan behar da minik ez hartzeko horrelakoetan) (JBA, 2005-05-14)

Rist: *Onom. Rist, labaindura adierazten duen onomatopeia./ Rist juten zian.* Rist joaten zen. (Belarra kablearen gainean) (JBA, 2004-05-29)

Róka, rókea: *iz. Arroka, harria./ Roka az-*

pira sartu da. Arroka azpira sartu da.
(Amuarrainaren gainean esana) (JBA,
2003-08-09)

Róman: Erroman, gizon izena./ *Róman.*
Erroman. (JBA, 2004-02-15)

Romátalde: (ik. Erromatalde)

Rotábatore, rotábatorea: *iz. Tre.* Erro-
tabatorea, lurra lantzeko tresna./ *Rota-*
batorea. Errotabatorea. (JBA)

Rúda, rúdea: (ik. Erruda)

Rúlo, rúloa: *iz. Tre.* Erruloa./ *Rulokin.*
Errulokin. (Ilean jartzen direnak) (JBA,
2008-01-12)

Rusó-gari, rusó-garie: (ik. Gari-ruso)



› **ROKEA.** Andraitz haitza basoan ageri da. (AA, 2008-04-30)